

MUTRIKU / 'Aitor eta beste mitoak' gaiari buruz mintzatuko da Iñaki Egaña historialaria

Ziriako Andonegi jaio zeneko mendeurrena ospatuz, gaur bigarren hitzaldia ospatuko da Zabel kultur etxean, arratsaldeko 19,00etatik aurrera. Hitzlari Iñaki Egaña historialaria arituko da eta jorratuko duen gaia berriz hauxe; 'Aitor eta beste mitoak, gerra aurreko zertzeladak'. Aurrekoan bezala gonbitea herritar guztiei luzatzen zaie, izan ere Mutriku oroimen historikoa bizi-bizi bai dago, eta guzti horien lekukotasuna jartzen saiatuko baita zenbait historia lan kaleratuak dituen hizlariak. Gogoratu bestalde, Ziriako izan zela 'Aitorren hizkuntza zaharra' idatzi zuena, beraz nondik norakoak jakin nahi dituenak hortxe du aukera. Nola nahi aurreko mahainguru jendetsuan kontatu ziren guztien artean atera zen honakoa ere; 'hobeagoa da gerra onena baino bake exkaxena'.

'Bookcrossing' saioa

Hurrengo apirilaren 2an, Christian Andersen idazlea jaio zeneko eguna izanik, haur liburuaren nazioarteko eguna ospatuko da, hori dela eta Mutrikuko Liburutegian 'bookcrossing' saioa antolatu da. Liburuak elkarrekin trukatzeko proiektua da izen berezi horren atzean dagoena, eta gaur egun mundu osoko milaka irakurle biltzen ditu. Izan ere aspaldi sortu zen egitasmo hau sistematizatu bai dago interneten ere, www.bookcrossing.com zuzenbideari esker. Ondorioz, egun horretan liburuak libre utziko dituzte kalean, liburu hori jasotzen duenak bere kodea sartuko du web gunean eta horrela liburu horren ibilbidea jarraitu ahal izango dute. Baina guztia ongi burutu ahal izateko liburuak behar dituzte, eta horiek liburutegira ekartzeko deia luzatu diete herriko haur guztiei. Haur eta gazteentzako euskarazko liburuak, bakoitzaren liburu kuttunenak, guztiak ekar daitezke liburutegira martxoaren 28a baino lehen, ondoren ekitaldia apirilaren 2an ospatuko delarik herrian zehar, baina horretarako izena ere eman behar da, plazak mugatuak bai dira. Izena emateko azken eguna martxoaren 28n izango da.